




-Edurra izanagatik, Jaxintok samur topaiten dau Aizkorrirako bidia (1984-2-12).

Iñoiz Aizkorrira fan ezkeru, zailla da Jaxinto Bellotzakin trikitx egin barik bueltaittia, izan be, aittaren baserrixan izenaz ezaunagua dan 61 urteko mendizale-ibilttari honek jokera berezixa dako mendi horretara igoteko. Gaiñera, nork eztau bere ibillaldixetaz zerbaitt entzun? Ondoren doiaz, bere zaletasun hau aitzakitzat hartuaz, Sanjuan bezpera freskuan karnazerixako lanak akabo eta gero, berarekin izan geben elkarriketan zihar esandakuak



JAXINTO LIZARRALDE BELLOTZA

- Zela sortu xatzun ibiltteko afiziñua?

Esaeria dan moduan, zorionez eta zoritxarrez, txiki-txikittatik tokau xat mendixan ibilttia: umetatik bizimodua kaletik kanpora ezagutu dot; batian basuan ardixakin, bestian Billafrankara oiñez ganauak ferixara eruaten... Zorionez, hala ikasi dot basuan ibiltten eta disfrutaitten, eta zoritxarrez, oso gazterik itxi bihar izan neben eskolia.

- Noiz arte fan ziñan eskolara?

Beratzu urterekin akabo neben nik karrera Maristetan. Eskolan gehixuago jarraiketia gus-tau izango xaten, baiña gazterik hasi bihar izan neben lanian.

- Zertan jardun zebeu ba?

Milla gauzetan ibillitakua naiz: pastore, ikaz-kin, San Jurgin kriau eta ganau-tratuan be ibilli nintzan, harik eta soldau juan artian.

- Gustokua izan dozu ala derrigorrezkua?

Ba, azkenerako ohittu egitten zara. Lehen ait-

tak eta amak basora lanera bialketan nindduai-nian, kalera begira egoten nintzan eta orain kaletik mendira begira egoten naiz, sarritan fan ezin dotenian. Akordaitten naiz mutikua nintzala, amak esan nostala "eruan egixozu ogixa aittari; han Kortako Gañian autobusetik urten eta topauko dozu bidia eta segiduan bialduko zau berriz be kalera"; baiña, bai zera! sei hillabete egin nittuan mendixan kalera bajau barik.

- Nun ebitzein ba aitta eta?

"Seme-alabak bizikleta barrixa erregalau nostain, baiña oranddiok zaharrarekin ibilttia gurago dot; Aizkorri puntan be egonda nago bizikleta horrekin".

Aittak kontratautako gizon kaudrillia eta anai nausixenak ikazkintzan ebitzen Miñeruenetik gora, Artasotik Araba mendira bittartian eta nerí, berriz, danetik egittia tokau xaten: batian 19 lagunendako rantxua gertaketia, bestian Aloñan geukan ardixak ikustera fatia...

- Eta gero karnazero...

Bai, nik orain dala 20 bat urte jarri neben karnazerixia, baiña aittarengandik ikasitta neukan ofiziuua. Bera zan Bellotzakua, eta Donostian ikasi eta gero, Atzeko kalian zabaldu eben karnazerixia eta guk, anai-arrebok, hobeto edo gaizkitxuago, danok dakigu kutxilua manejaiten.

- Hori ofiziuua, eta basua afiziñua?

Bai horixe, baiña basuan be profesixuan antzera, jakin egin bihar da noiz eta zela ibilli, eta hori be ikasi egitten da ibillixaren puruz, baiña asko tiraketan dau. Neretzat medixiniaren parekua da. Behin andria, alaba gaztiena eta hirurok hemen geuntzela, andriari esan notzan: "medixi-ña hartu biharra dakot", eta alabiak "ze medixi-

Araba Etorbidea, 4
Tfnoa. 79 01 32
ARRASATE
9,00 - 13,00
16,00 - 20,00



Olakua, 14
Tfnoa. 71 60 00
OÑATI
16,00 - 20,00

- MAILA GUZTIAK
- HAURRAK, GAZTEAK, HELDUAK
- GOIZ ETA ARRATSALDEZ

HURBILDU ZAITEZ GURE BULEGOETARA!

ALEMANA • FRANTSESA • INGELESA



ña hartzen dozu ba?”. Andriak aguro entendiuanostan ibilltia zala neri komeni xatena.

-Egunero urteten dozu?

Egunero ez, baiña lanak lotzen ez nauen guztietan eta eguraldixak lagunketan badau, edurra-kin be igual faten naiz. Astegunetan, eguerdixan bokau bat egin, kotxia hartu eta Arantzazura eta handik normalian Aizkorri aldera, Santokristua itxoitten egoten da eta; gero, bostetarako berriz be lanera.

- Jokera haundixa dozu Aizkorrirako, eta egunian buelta bat baiño gehixago emun izan dozu ezta?

Baitta bost be! Baiña urte mordua preparaitten ibilli eta gero. Mutikotan pentsaitten neben “hona behin baiño gehixagotan igo leike egun baten” eta horretxegatik hasi nintzan, batian bi buelta, bestian lau.

Lau fan-etorri egin nittuan lehenengo aldixan, San Iñazio bezpera baten, andria eta Arantzazura eruan nindduana bakarrik egozen jakiniñan eta, ikusi be, iñoñ ez nindduan ikusi; eta hurrengo urtian atzera be lau egin nittuanian, jentia enterau egin zan eta ezin lekiela eta balekiela hasi zan. Orduan bururatu xaten hurrengo urtian bost aldiz jarraixan igotia, baiña biaje bakoitzian lagun diferente bat nerekin etorritta eta goixan beste bat denpora danian egonda, nerekin batera urteten ebeiñak beriala atzian izten nittuelako.

- Eta bost biadjok egun baten?

Bai horixe, eta artian be, 8 ordu sobrau xaten, 16 ordutan egin nittualako Sindikatik Aizkorrirako bost biadjok.

- Noiz izan zen hori?

80xan, nik 49 urte neukala, eta hurrengo urtian Euskal Herriko bost mendi nonbrauenak igo nittuan bata bestiaren atzetik. Izan be, Aizkorrikoa eginnda gero, jentiak bost aldiz leku batera fatia aspergarrixa ez ete zan esaten nostan, eta, pentsaitten jarritta, hori be hala da. Orduan erabagi neben bost diferente egittia: Gorbeixa, Anboto, Udalaiz, Aizkorri eta Txindoki. Dana 37 ordutan.

- Zeu bakarrik fan ziñan?

Ez, bakarrik enintzan momentu batian be egon. Aurretik esanda neukan lagun batzuri halako lekutik halako lekura nerekin etorteko.

“Aizkorrira egun baten bost aldiz fan nintzanian, gure txakurrak, galgo baltz batek, hirugarrenera orduko meko egin eben”.

Ibillaldi hau gertaketan hamaika hillabetian ibilli nintzan: Aizkorrira fan be egin barik, hartu kotxia eta pasau bihar nittuan leku eta bidiak zatika ezauketan; gabaz be ibilli behar nintzan eta.

- Zeu izan ziñan organizadore orduan?

Bai, bai, neure kasa egin neben hau. Geruago hasi ziran *Hiru haundixak* (Gorbeixa, Anboto, Aizkorri) eta organizaitten, eta hori be hiru alditan eginnda nago. Asko gustaitten xat halako martxak. Oñatiko bueltia be ederra da oso. Ni enterauta egoten naiz, baiña askotan ezin dot fan zapatuan eta izaten diralako.

- Beste ibillaldi luzerik egin dozu?

Bai, Bitorixara fan eta etorri; Donostiatik be etorritta nago eta Panplonatik hiru aldiz; azkenengua dana kamiñoz. Baiña asfaltua oso gogorra da, neretako behintzat: pausua beti iguala izaten da eta muskuluak gogortu egitten xatzu. Basuan, berriz, harrixa dala, sustarra dala, posturia gehixago aldaketan da.

- Tokau izan xatzu pentsautako zerbait egin ezindda geraketa?

Ez; lehen esan doten moduan, aurretik ondo gertaketan naiz, zatika pruebak egiñaz, eta gaiñera, ez da karrera be: gustaitten xatelako egitten dot, ez famiagatik.

- Horrenbeste ibillaldi eginnda gero, eukiko dozu anekdotaren bat...

Bat kontauko dotzuet: Panplonatik nentorren baten, Altsasutik aurrera, erre-usaiña hartu neben eta ikazkiñak txondorgiñan ebitzela pentsau neben. Baiña iñundik kerik ez, eta halako baten konturatu nintzan neure botak zirala, urketan hasitta egozela. Ordu askuan nentorren martxan, baiña hala be, pentsau egizue zelako berua egongo zan!



- Sekula pentsau dozu zure ibillaldixok liburu baten jasotia?

Burutik pasau izan xat, makiña bat dato be jasota dakot eta etxian be esaten dostai, baiña hartarako patxadia hartu bihar da eta aurreragorako itxi biharko dot.

- Eta aurrera begira badakozu beste asmorik?

Aspaldittik dabitt buruan Gipuzkuari bueltia oiñez emutia. Zatika eginnda dakot eta liburua be ixa buruz dakitt. Baiña horretarako gutxienez astebete bihar dot eta oraingo ezin dot. Libretxuago geraketa naizenerako itxi biharko hori be!

-Oltzatik Aizkorrira bizikletan igo ebenekua (1987-2-12)



KONTRATAK
IRUROK, S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis. • Tfnoa 77 09 92
20500 ARRASATE

San Lorenzo, 39 • Tfnoa: 78 21 82
20560 OÑATI